

IRUNGO 6.3.01 ALARDE EREMUKO BABES PUBLIKOKO 52 ETXEBIZITZA ALOKAIKUAN ESLEITZEKO DEIALDIA ETA OINARRIAK.

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- 2003az geroztik, Irungo Udalak, IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA / SOCIEDAD PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN SAUren bitartez (aurrerantzean IRUNVI), martxan du Etxebizitza Publikoaren Eskatzaileen Erregistroa. Denboraz izaera irekikoa da, eta Irungo herritarren eskaerak jasotzen dira bertan, gero etxebizitza babestuaren alorrean dagoen araudian oinarrituta esleipendun izateko aukera izan dezaten alor horretako sutapenetan, bai udal-partzelakoetan bai partzela pribatukoetan, etxebizitza-esleipena kudeatzeko IRUNVIri enkargatu bazaio.

BIGARRENA.- 2013ko martxoaren 18an, IRUNVIko Administrazio Kontseiluak "*Irungo Udaleko/IRUNVIko Babes Publikoko Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistroa arautzen duen Erregelamendua*" onetsi zuen. Araudi hori aldatu egin zen Administrazio Kontseiluak 2017ko martxoaren 8an hartutako erabakiaren bidez, ekainaren 18ko 3/2015 Legeak aldaketa garrantzitsuak egin baitzituen etxebizitzak esleitzeko prozedurari dagokionez. Erregelamendu horren 2. artikulua IRUNVIk etxebizitzen esleipenerako duen lehentasuna ezartzen du, eta 8. artikulua, berriz, IRUNVIko Babes Publikoko Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistroaren eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidurako Bizitokien Eskatzaileen Erregistroaren arteko koordinazioa arautzen du.

HIRUGARRENA.- Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-ordezkararen 2020ko uztailaren 17ko ebazpenaren bidez, babes publikoko etxebizitzen behin-behineko kalifikazioa eman zen ERREGIMEN OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 42 ETXEBIZITZETARAKO, HAIEN ERANSKINAK BARNE, IRUNGO 6.3.01 ALARDE EREMUKO B PARTZELAKO 6. eraikinean, Elizatxo hiribideko 3an, EB3-0292/20-LE-000 espedientea.

LAUGARRENA.- Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-ordezkararen 2020ko maiatzaren 25eko ebazpenaren bidez, babes publikoko etxebizitzen behin-behineko kalifikazioa eman zen ERREGIMEN OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 10 ETXEBIZITZETARAKO, HAIEN ERANSKINAK BARNE, IRUNGO 6.3.01 ALARDE EREMUKO C PARTZELAN, Irungo Alarde kaleko 9an, DAGOZKIEN TRASTELEKU ETA GARAJEAK BARNE, EB3-0270/21-LE-000 espedientea.

BOSGARRENA.- ETXEBIZITZAKO PLANGINTZA ETA PROZESU ERAGILEEN ZUZENDARIAREN 2022ko uztailaren 19ko ebazpenaren bidez, IRUNVIri 2.340.000 euroko finantza-laguntza eman zitzaion, ARAUBIDE OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 42 ETXEBIZITZA sustatzeko B PARTZELAN ETA ARAUBIDE OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 10 ETXEBIZITZA C PARTZELAN, gero alokairu babestukoak izateko.

Laguntzak emateko ebazpen horretan, honako baldintzatzaile hauek ezartzen ziren:

ALOKAIKUAREN ARAUBIDEKO BALDINTZAK:

b) Gehieneko eta gutxieneko diru-sarrerak: Urteko diru-sarrera haztatuak egiaztatu beharko dira, honako gutxieneko eta gehieneko zenbateko hauen artean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2011ko irailaren 14ko Aginduaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, agindu horrek babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko urteko diru-sarrera haztatuen mugak aldatzen baititu. Horrela bada, araubide OROKORREKO babes ofizialeko etxebizitzak alokatzeko,

9.000 eurotik 39.000ra (etxebizitzaren eta lurzoruaaren alorrean kreditu-entitateen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzko abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuan aldatua, eta etxebizitza-alorreko arauzko xedapenak aldatzen dituen).

ALDI KONPUTAGARRIA. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkezteko epea bukatuak, ondoko zergaldia baino lehenagokoa baita zergaldi hori: Alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak esleituz gero, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko gehieneko diru-sarreraren betekizunak betetzen direla egiaztatu beharko da, errentamendu-kontratu pribatua sinatzen den egunean edo administrazioarekin kontratua formalizatzen den egunean. Diru-sarrera horiek hartuko dira kontuan hasierako gehieneko errenta finkatzeko.

c) Alokairuko babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko, bizikidetzaren unitateko kide batek ere ez du eduki behar etxebizitzarik jabetzan, azalera-eskubidean edo gozamenean, kasu bakoitzerako martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 17. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako dataren aurreko bi urteetan. Dekretu hori babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaaren arloko finantza-neurriei buruzkoa da.

Honako hauek izango dira etxebizitza-beharraren betekizuna betetzen dela egiaztatzen konputu-datak:

- Behin-behineko kalifikazioaren data, babes ofizialeko etxebizitza errentan lagatzen bada.

- Errentamendu kontratua ikus-onesteko aurkeztu den data, ondorengo errentamenduetarako.

d) lehenengo errentaren kalkulua: Etxebizitzaren eta eranskinen salmentan eman ahal den balioaren ehuneko bat ezarriz kalkulatu da, eta portzentajea esleipen-hartzailearen diru-sarreraren arabera zehaztu da.

e) Hasierako gehieneko urteko errenta: Jabetza osoan eraikitako araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzari aplikatu beharreko ehunekoak.

Urteko gehieneko errenta kalkulatzeko, honako portzentaje hauek aplikatu behar zaizkio araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren eta haien eranskinen jabetza osoko gehieneko salmenta-prezioari:

a) 15.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten bizikidetzaren unitateak: % 2,27.

b) 15.001 eurotik 21.000 eurora bitarteko diru-sarrerak dituzten bizikidetzaren unitateak: % 2,91.

c) 21.001 eurotik 25.100 eurora bitarteko diru-sarrerak dituzten bizikidetzaren unitateak: % 3,64.

d) 25.101 eurotik 30.000 eurora bitarteko diru-sarrerak dituzten bizikidetzaren unitateak: % 4,27.

e) 30.001 eurotik 35.000 eurora bitarteko diru-sarrerak dituzten bizikidetzaren unitateak: % 4,73.

f) 35.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten bizikidetzaren unitateak: % 5,18.

f) *Salmenta-prezioa: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2010eko azaroaren 3ko Aginduaren 11.3 artikulua, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa:*

"Modu iraunkorren kalifikaturiko eta erabiltzaile edo erosleek errentamendura bideraturiko babes ofizialeko etxebizitzak bigarren eta ondorengo eskualdatzeetan saltzen badira, honako gehieneko prezio hauetan besterendu ahalko dira:

Behin betiko kalifikazioa egin zenetik kontatzen hasita, 1. eta 15. urteen artean salduz gero, une horretan indarrean dagoen gehieneko prezioa.

Behin betiko kalifikazioa egin zenetik kontatzen hasita, 15. urtetik 50. urtera bitarte salduz gero, une horretan indarrean dagoen gehieneko prezioan, gehi % 20.

Behin betiko kalifikazioa egin zenetik kontatzen hasita, 50. urtetik aurrera salduz gero, une horretan indarrean dagoen gehieneko prezioan, gehi % 25."

g) *Errenten berrikuspena: Errentamendu-kontratuak edo haren bost urtera arteko luzapenek irauten duten bitartean, urteko errenta automatikoki eguneratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumorako Prezioen Indizeak izandako ehunekoen arabera. Errenta urtero eguneratzeko, eguneratzearen urteko sortzapenaren unean ofizialki eskuragarri dagoen urte arteko azken indizea aplikatuko da.*

ERRENTAMENDU KONTRATUAREN HASIERAKO epea amaituta, baldin eta bizikidetzaren unitateak indarrean dagoen araudiak errentamenduan jarraitzeko eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen badu, kontratua berritu ahal izango da, betiere Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2010eko azaroaren 3ko Aginduaren 13.1 artikulua aplikatuz dagokion hasierako gehienekoraino eguneratuz urteko errenta. Agindu hori babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa da.

Edozein unetan, errentamenduak irauten duen bitartean, bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak egiaztatu ahalko dira. Baldin eta egiaztatzen bada hasierako errenta zehazteko kontuan hartutakoak baino diru-sarrera handiagoak daudela, egiaztatutako diru-sarrerari dagokien portzentajera egokitu ahalko da errenta.

h) *Kontratuen gutxienezko iraupena: 5 urte.*

i) *Bigarren eta ondorengo errentamendu-kontratuen urteko errenta maximoa: etxebizitzaren prezio eguneratuari dagokion ehunekoa aplikatuko zaio, errentariaren diru-sarreraren arabera.*

B) MAIZTER BALDINTZAK:

a) *Babes ofizialeko etxebizitzaren onuradun izateko edo, errenta sozialaren kasuan, etxebizitza sozialen onuradun izateko betekizunak betetzen dituzten bizikidetzaren unitateei alokatzea etxebizitzak.*

b) *Errentamendu-kontratuaren, etxebizitza eta eranskinak hirugarren pertsonari alokatzeko eta/edo lagatzeko berariazko debekua itunduko da, eta hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi berezia izango da.*

c) *Errentamendu-kontratuaren, berariaz adierazi behar da, nahitaezko klausula gisa, etxebizitzaren errentariak konpromisoa hartzen duela ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzeko eta etxebizitza hori hilabeteko epean okupatzeko, eskura jartzen zaionetik. Horretarako, dagokion udal-ziurtagiria aurkeztu beharko du, dagokion Lurralde Ordezkaritzan, hilabeteko epe horretan.*

BOSGARRENA.- Etxebizitzen helburua alokairu babestua baldin bada, konpromisoa hartuko da indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzen arabera etxebizitzak alokairu babestura bideratzeko, errentariak ordaindu beharreko gehieneko errenta eta errentan egongo diren gutxieneko epea zehaztuta, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko abenduaren 7ko Aginduaren 31.3.d) artikuluan aurreikusitakoa betez. Agindu hori etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak alokatzea eta erabiltzeko beste modu batzuk sustatzeko jardueri buruzkoa da.

SEIGARRENA.- B PARTZELAN ERREGIMEN OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 42 ETXEBIZITZAK eta C PARTZELAN ERREGIMEN OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 10 ETXEBIZITZAK esleitzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko urriaren 15eko AGINDUAN xedatutakoa hartuko da kontuan, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa baita, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko abenduaren 12ko AGINDUAREkin lotuta, honako huts hauek zuzentzen dituen aldetik: "Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko urriaren 15eko AGINDUAN xedatutakoa hartuko da kontuan, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa "... era berean, eta abenduaren 26ko 210/2019 DEKRETUKO AZKEN XEDAPENETAKO ZAZPIGARRENEAN xedatutakoaren arabera (etxebizitzaren eta lurzorua alorrean kreditu-entitateen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari arau-xedapenak aldatzeari buruzkoa da dekretua), aldatu egiten da 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuarena, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroari eta Autonomia Erkidegoko Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Zuzkidurako Bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa, hain zuzen ere 2012ko urriaren 15eko Aginduaren II. Tituluko III. Kapitulua aldatu da, eta honela xedatu da:

"Atal honetan araututako esleipen-prozedura babes ofizialeko honako etxebizitza hauetan erabiliko da: etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak eta atxikitako sozietate publikoek sustatutakoetan; etxebizitzaren arloan eskumena duen sailarekin hitzarmena duten udalek sustatutakoetan; eta itunpeko sustapenekoetan."

SEIGARRENA.- 2022ko uztailaren 19ko ebazpenaren esparruan eta aipatutako etxebizitzak esleitzeko prozedurari dagokionez, LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILAK, kontuan hartuta IRUNVIren gaitasun, profesionaltasun eta historia, gainera eskatzailearen erregistroa ere bai baitu, iritzi zuen sozietate horrek esleipen-prozedura osoa sustatu eta kudeatzeko ardura har zezakeela eta esleipenean sar zitzakeela, IRUNVI Erregistroan izena emanda dauden guztiekin batera, Etxebide Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan alokairu erregimenean inskribatuta dauden eskatzaileak ere, horretarako betekizunak betetzen badituzte eta Irungo udalerrian eskatzaileak baldin badira.

ZAZPIGARRENA.- 2022ko irailaren 1ean argitaratu zen EHAAn 80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokiaren bizigarritasun-baldintza minimoak eta diseinatzeko arauak arautzen dituena. Azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoarekin bat etorriz, dekretu hori EHAAn argitaratu eta 90 egunera jarri zen indarrean. 5. artikulua xedatzen duenez, etxebizitzaren gehiegizko okupazioa etxebizitzak ohi ez den bezala erabiltzea da, eta haren gizarte-funtzioa ez da betetzen. Horrez gain, etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokiaren jabeek beharrezko neurriak hartu behar dituzte etxebizitza edo bizitoki bat gehiegizko okupazioaren egoeran baldin badago.

ZORTZIGARRENA.- Gerora, 2022ko azaroaren 4an, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren 2022ko urriaren 14ko Agindua argitaratu zen EHAAn, alokairuari buruzkoa, asmoa

duena etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun larriak dituen biztanleria-segmentuari erantzutea. Bertan gomendatzen da etxebizitza sozial eta eskuragarriko jarduerak zabaltzea, orain «gizarte-egoera ahulean dauden taldeetara» mugatuak baitzeuden eta «etxebizitzaren merkatu pribatuak beharrak asetzen ez dizkien biztanleria-talde zabalagoetara (adibidez, klase ertain eta apaletara) zabaldu nahi dira». Gaineratzen du politika horrek «sozialki askotarikoagoak diren komunitateak sustatuko lituzkeela, eta gizarte-bereizketaren arazoari aurre egiten lagunduko lukeela». Era berean, Azken Xedapenetako Lehenak aldatu egiten du Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 47 bis artikulua (agindua etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta erregimen autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa da, eta babes ofizialeko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak errentamendu-araubidean etxebizitzaren alorrean eskumena duen sailak esleitzeko prozedura arautzen du) eta honako hau ezartzen du:

1.- Sustapen guztietan, berariaz kolektibo jakin batentzat diren autonomia-araubideko zuzkidurazko bizitokiak izan ezik, etxebizitza-kupoak erreserbatuko dira kolektibo jakin batzuen beharrei erantzuteko. Hona kolektiboak:

- a) Abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskineko A edo B letrekin kalifikatutako pertsona ezgaituak, edo eranskin horretako D eta H letren arabera 7 puntu edo gehiago dituztenak. Errege Dekretu horrek ezgaitasun maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura arautzen du.
- b) 36 urtetik beherako pertsonak, titularretako bat gutxienez adin horretatik beherakoa duten bizikidetzak-unitateak barne.
- c) Etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa duten titularrak.
- c) Etxebizitza-premia berezia duten pertsonak.
- d) Gainerako eskatzaileak edo kupo orokorra.

2.- Zenbait kolektibotakoak diren pertsonak edo bizikidetzak-unitateak etxebizitza erreserbatuen kupo altuenaren barruan sartuko dira.

3.- Kupoak behin-behinean zehaztuko dira esleipen-prozedura hasteko aginduan, kontuan hartuta kolektibo bakoitzak zer ehuneko ordezkatzeko duen sustapena dagoen udalerrian eta/edo eremu funtzionalean Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako pertsona edo bizikidetzak-unitate guztien gainean.

4.- Baldin eta, prozeduran sartzeko epea amaitu ondoren, hasierako ordenan ezarritako kupoak nabarmen aldatzen badira kolektibo bakoitzak haietan sartuta dituen bizikidetzak-unitate edo pertsona guztien artean duen portzentajetik, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailburuaren aginduz, behin betiko aldatuko dira kupoak.

5.- Behin-behineko eta behin betiko etxebizitza-kupoek honako portzentaje hauek errespetatu beharko dituzte:

- a) Artikulu honetako 1. apartatutako a) azpiapartatuan aipatutako kolektiboarentzat, egokitutako etxebizitzaren % 100 erreserbatuko da.

b) 1. apartatutko b) azpiapartatuan aipatutako kolektiboarentzat, gehienez, egokitu gabeko etxebizitzak % 40 erreserbatuko da.

c) 1. apartatutko c) azpiapartatuan aipatutako kolektiboarentzat, gehienez, egokitu gabeko etxebizitzak % 40 erreserbatuko da.

6.– Gainerako eskatzaileen kupoaren edo kupo orokorraren barruan, bai eta 36 urtetik beherako pertsonen kupoaren barruan ere, berariazko kupo bat ezarri ahal izango da, bizikidetza-unitatearen diru-sarrerara haztatuen arabera, urteko 21.000 eurotik 39.000 eurora bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileentzat, diru-sarrerara haztatuen baldintza berberetan.

7.– b) eta c) azpiapartatueta aurreikusitakoa aplikatuz erreserbatu ez diren etxebizitzak gainerako kupoei esleituko zaizkie.

8.– Baldin eta kupo bateko etxebizitzak erreserba dagokien kolektibo horretako pertsoneri edo bizikidetza-unitateari esleitu gabe geratzen badira, handitu egingo da gainerako eskatzaileentzako kupo orokorrerako diren etxebizitzak.

BEDERATZIGARRENA.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 27. artikulua zehazten du etxebizitza bat noiz jo behar den egokitzat bizikidetza-unitateko kideen kopurua eta esleitu beharreko etxebizitzako gelak kontuan hartuta.

Arestian adierazitakoa kontuan hartuta, etxebizitza horiek esleitzeko prozedurari hasiera ematen zaio, eta hona hemen hartarako oinarriak:

1. Deialdia.

Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta IRUNVIren web orrian argitaratuko da, iragarri Gipuzkoako lurralde historikoan gehien irakurtzen diren euskarazko eta gaztelaniazko egunkarrietan argitaratuko dela.

2. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da 6.301 Alarde eremuan babes publikoko 52 etxebizitza esleitzeko prozedura ezartzea.

3. Esleipen-prozedura bete behar duten etxebizitzak.

Esleipen-prozedura honen xedeko etxebizitzak alokairuko erregimen orokorreko babes ofizialeko 52 etxebizitza eta haiei dagozkien eranskinak dira. Etxebizitza horiek Eusko Jaurlaritzaren behin-behineko kalifikazioa dute, honako espediente-zenbaki hauetan jasotakoaren arabera:

EB3-0292/20-LE-000 ESPEDIENTEA

EB3-0270/21-LE-000 ESPEDIENTEA

3.1 ETXEBIZITZA EGOKITUAK

Etxkod	ESPED. ZK.	HELBIDEA	ATARIA	PISUA	LETRA	BIZILAGUN KOP.	m ²
1	EB3-0292/20-LE-023	Elizatxo hiribidea	3	2	H	2	76,75
2	EB3-0292/20-LE-015	Elizatxo hiribidea	3	1	H	2	76,75
2	EB3-0270/21-LE-001	Alarde	9	B	A	2	60,67

3.2 GAINERAKO ETXEBIZITZAK.

LOGELA 1 DUTEN ETXEBIZITZAK

Etxkod	ESPED. ZK.	HELBIDEA	ATARIA	PISUA	LETRA	BIZILAGUN KOP.	m ²
4	EB3-0292/20-LE-035	Elizatxo hiribidea	3	4	D	1	51,22
5	EB3-0292/20-LE-034	Elizatxo hiribidea	3	4	C	1	50,13
6	EB3-0292/20-LE-027	Elizatxo hiribidea	3	3	D	1	51,22
7	EB3-0292/20-LE-026	Elizatxo hiribidea	3	3	C	1	50,13
8	EB3-0292/20-LE-019	Elizatxo hiribidea	3	2	D	1	51,22
9	EB3-0292/20-LE-018	Elizatxo hiribidea	3	2	C	1	50,13
10	EB3-0292/20-LE-009	Elizatxo hiribidea	3	1	B	1	59,07
11	EB3-0292/20-LE-011	Elizatxo hiribidea	3	1	D	1	51,22
12	EB3-0292/20-LE-003	Elizatxo hiribidea	3	B	C	1	51,22
13	EB3-0292/20-LE-002	Elizatxo hiribidea	3	B	B	1	50,13
14	EB3-0270/21-LE-002	Alarde	9	B	B	1	46,35

2 LOGELAKO ETXEBIZITZAK

Etxkod	ESPED. ZK.	HELBIDEA	ATARIA	PISUA	LETRA	BIZILAGUN KOP.	m ²
15	EB3-0292/20-LE-039	Elizatxo hiribidea	3	5	A	2	70,00
16	EB3-0292/20-LE-042	Elizatxo hiribidea	3	5	D	2	66,02
17	EB3-0292/20-LE-040	Elizatxo hiribidea	3	5	B	2	63,93
18	EB3-0292/20-LE-041	Elizatxo hiribidea	3	5	C	2	62,88
19	EB3-0292/20-LE-033	Elizatxo hiribidea	3	4	B	2	69,57
20	EB3-0292/20-LE-038	Elizatxo hiribidea	3	4	G	2	67,55
21	EB3-0270/21-LE-009	Alarde	9	4	A	2	61,36
22	EB3-0292/20-LE-036	Elizatxo hiribidea	3	4		2	60,66
23	EB3-0292/20-LE-037	Elizatxo hiribidea	3	4		2	58,54
24	EB3-0292/20-LE-025	Elizatxo hiribidea	3	3	B	2	69,57
25	EB3-0292/20-LE-031	Elizatxo hiribidea	3	3	H	2	68,53
26	EB3-0292/20-LE-030	Elizatxo hiribidea	3	3	G	2	63,42
27	EB3-0270/21-LE-007	Alarde	9	3	A	2	61,36
28	EB3-0292/20-LE-028	Elizatxo hiribidea	3	3	E	2	59,81
29	EB3-0292/20-LE-029	Elizatxo hiribidea	3	3	F	2	59,44
30	EB3-0292/20-LE-017	Elizatxo hiribidea	3	2	B	2	69,57
31	EB3-0292/20-LE-022	Elizatxo hiribidea	3	2	G	2	63,42
32	EB3-0270/21-LE-005	Alarde	9	2	A	2	61,36
33	EB3-0292/20-LE-020	Elizatxo hiribidea	3	2	E	2	59,81
34	EB3-0292/20-LE-021	Elizatxo hiribidea	3	2	F	2	59,44
35	EB3-0292/20-LE-010	Elizatxo hiribidea	3	1	C	2	65,51

36	EB3-0292/20-LE-014	Elizatxo hiribidea	3	1	G	2	63,42
37	EB3-0270/21-LE-003	Alarde	9	1	A	2	61,36
38	EB3-0292/20-LE-012	Elizatxo hiribidea	3	1	E	2	59,82
39	EB3-0292/20-LE-013	Elizatxo hiribidea	3	1	F	2	59,44
40	EB3-0292/20-LE-007	Elizatxo hiribidea	3	B	G	2	70,00
41	EB3-0292/20-LE-006	Elizatxo hiribidea	3	B	F	2	66,25
42	EB3-0292/20-LE-001	Elizatxo hiribidea	3	B	A	2	62,82
43	EB3-0292/20-LE-004	Elizatxo hiribidea	3	B	D	2	59,82
44	EB3-0292/20-LE-005	Elizatxo hiribidea	3	B	E	2	59,44

3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK

Etxkod	ESPED. ZK.	HELBIDEA	ATARIA	PISUA	LETRA	BIZILAGUN KOP.	m ²
45	EB3-0292/20-LE-032	Elizatxo hiribidea	3	4	A	3	89,72
46	EB3-0270/21-LE-010	Alarde	9	4	B	3	66,69
47	EB3-0292/20-LE-024	Elizatxo hiribidea	3	3	A	3	89,72
48	EB3-0270/21-LE-008	Alarde	9	3	B	3	66,69
49	EB3-0292/20-LE-016	Elizatxo hiribidea	3	2	A	3	89,72
50	EB3-0270/21-LE-006	Alarde	9	2	B	3	66,69
51	EB3-0292/20-LE-008	Elizatxo hiribidea	3	1	A	3	89,72
52	EB3-0270/21-LE-004	Alarde	9	1	B	3	66,69

4. Etxebizitzak lagatzeko araubidea.

Lagapen-araubidea alokairuko araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzarena da.

5. Prozesuan parte hartzeko betekizunak.

Esleipen-prozesuan parte hartzeko, honako betekizun hauek bete behar dira:

Izen-ematea:

Ondoren adierazten diren izen-emateko bi betekizunetakoren bat bete behar da:

- 1) Irungo Udaleko/Irunviko Babes Publikoko Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroan izena emanda egotea alokairu-erregimenean.
- 2) "Etxebide"n izena emanda egotea, Irungo udalerriko alokairu-erregimeneko eskatzaile gisa, eta IRUNVIIn esleipen-prozedura honetan izena emateko inprimakia aurkeztu izana.

Gehieneko eta gutxieneko diru-sarrerak:

Urteko diru-sarrera haztatuak egiaztatu beharko dira, gutxieneko eta gehieneko zenbateko hauen artean: 9.000 €-tik 39.000 €-ra.

Mugikortasun gutxitu iraunkorra duten ezgaitasunen bat dutenen kasuan, baldin eta ezgaitasun psikiko edo etxebizitza-beharra arautzen duen Aginduan hala definituta badaude eta ezgaitasun psikiko gisa deklaratu badaude, minusbaliotasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko

prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 1.A eranskinaren 15. eta 16. kapituluetan xedatutakoaren arabera, ez da eskatuko gutxieneko diru-sarrerarik egiaztatzea alokairu-erregimenean, eta jabetza osoko erregimenean edo azalera-eskubidean sartzeko, nahikoa izango da 3.000 euroko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea.

Halaber, ez zaie gutxieneko diru-sarreraren betekizuna betetzerik eskatuko genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeei, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduan hala eskatzen denez. Agindu hori genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitzaren alorreko ekintza positiboko neurriei buruzkoa da.

Esleipen-prozedura honetan parte hartu ahal izateko, 2021eko zergaldia hartuko da kontuan.

Hala ere, alokairuko erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko gehienezko diru-sarreraren betekizunak betetzen direla egiaztatu beharko da IRUNVIrekin errentamendu-kontratu pribatua formalizatzen den egunean, eta diru-sarrera horiek hartuko dira kontuan, hasierako gehienezko errenta finkatzeko.

Etxebizitzarik ez edukitzea:

Bizikidetzaren unitateko kide guztiek ez dute etxebizitzarik edukiko jabetzan, azalera-eskubidean edo gozamenean, prozedura honetan izena emateko epea amaitu aurreko bi urteetan, oinarri hauetako 6. atalean adierazi bezala.

Etxebizitzarik ez edukitzeko betekizunaren salbuespenak automatikoki aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera izango dira.

Babes ofizialeko etxebizitza bat alokairu-erregimenean, zuzkidurazko bizitoki bat edo etxebizitza parekatu bat duten pertsonak edo bizikidetzaren unitateek prozesu honetan parte hartu ahal izango dute, baldin eta, kontratuaren amaiera oinarri hauek argitaratu eta hurrengo 6 hilabeteetan aurreikusita badago.

Bizikidetzaren unitatea:

Gehienez ere 6 kideko bizikidetzaren unitate batekoa izatea

6. Prozesuan izena emateko epea.

Irungo Udaleko/IRUNVIko babes publikoko etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan izena emateko eskaerak eta aldaketak kontuan hartzeko epea hilabetekoa izango da, deialdia eta oinarriak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

"Etxebide"n izena emanda dauden pertsonak edo bizikidetzaren unitateek, oinarri hauetan eta gainerako araudi aplikagarrietan aurreikusitako betekizunak betetzen badituzte eta esleipen-prozesuan parte hartu nahi badute, I. Eranskin gisa doan inprimakia aurkeztu beharko dute IRUNVIIn, oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean. Formulario hori bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango da Irungo Udalaren egoitza elektronikoa, edo IRUNVIren bulegoetan bertara joanda.

Epe hori amaitzen den eguna izango da erreferentziako data, prozeduran sartzeko betekizunak baliozkotzeko, etxebizitzak esleitzeko kupoak prestatzeko, baremazioa kalkulatzeko eta esleipenerako lehentasuna zehazteko.

7. Kupoak eta kupoei etxebizitzak esleitzea.

7.1 Kupoak.

1. Esleitu beharreko 52 etxebizitzetatik, honako kupo eta azpikupo hauek erreserbatuko dira:
 - a) Abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskineko A edo B letrekin kalifikatutako pertsona ezgaituen kolektibo-kupoa, edo eranskin horretako D eta H letren arabera 7 puntu edo gehiago dituztenak. Errege Dekretu horrek ezgaitasun maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura arautzen du.
 - b) 36 urtetik beherako pertsonen kolektibo-kupoa, titularretako bat gutxienez adin horretatik beherakoa duten bizikidetza-unitateak barne.
 - c) Etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa duten pertsonen kolektibo-kupoa.
 - d) Etxebizitza-premia berezia dutenen kolektibo-kupoa.
 - e) Gainerako eskatzaileen kupoa edo kupo orokorra:

Gainerako eskatzaileen kupoaren edo kupo orokorraren barruan, bai eta 36 urtetik beherako pertsonen kupoaren barruan ere, berariazko kupo bat ezarriko da, bizikidetza-unitatearen diru-sarrerara haztatuen arabera, bizikidetza-unitatearen diru-sarrerara haztatuen terminoetan urteko 21.000 eurorainoko diru-sarrerak dituzten eskatzaileentzat, eta beste bat, bizikidetza-unitateko diru-sarrerara haztatuen terminoetan urteko 21.001 eurotik 39.000 eurora bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileentzat, diru-sarrerara haztatuen baldintza berberetan.

Zenbait kolektibotakoak diren pertsonak edo bizikidetza-unitateak etxebizitza erreserbatuen kupo altuena duenaren barruan sartuko dira.

Baldin eta, prozeduran sartzeko epea amaitu ondoren, hasierako ordenan ezarritako kupoak nabarmen aldatzen badira kolektibo bakoitzak haietan sartuta dituen bizikidetza-unitate edo pertsona guztien artean duen portzentajetik, IRUNVIko Administrazio Kontseiluaren erabakiz, behin betiko aldatuko dira kupoak.

7.2 Kupoei etxebizitzak esleitzea.

- a) Artikulu honetako 1. apartatutako a) azpiapartatuan aipatutako kolektiboarentzat, etxebizitza egokituen % 100 erreserbatuko da: 3 etxebizitza.

Etxkod	ESPED. ZK.	HELBIDEA	ATARIA	PISUA	LETRA	BIZILAGUN KOP.	m ²
1	EB3-0292/20-LE-023	Elizatxo hiribidea	3	2	H	2	76,75
2	EB3-0292/20-LE-015	Elizatxo hiribidea	3	1	H	2	76,75
2	EB3-0270/21-LE-001	Alarde	9	B	A	2	60,67

- b) 36 urtetik gorako kolektiboarentzat, egokitu gabeko etxebizitzen % 34 erreserbatuko da: 17 etxebizitza.

b.1) 21.000 eurorainoko diru-sarrerak dituzten azpikupoa: 10 etxebizitza.

Etxkod	ESPED. ZK.	HELBIDEA	ATARIA	PISUA	LETRA	BIZILAGUN KOP.	m ²
46	EB3-0270/21-LE-010	Alarde	9	4	B	3	66,69
19	EB3-0292/20-LE-033	Elizatxo hiribidea	3	4	B	2	69,57
20	EB3-0292/20-LE-038	Elizatxo hiribidea	3	4	G	2	67,55
21	EB3-0270/21-LE-009	Alarde	9	4	A	2	61,36
22	EB3-0292/20-LE-036	Elizatxo hiribidea	3	4	E	2	60,66
23	EB3-0292/20-LE-037	Elizatxo hiribidea	3	4	F	2	58,54
24	EB3-0292/20-LE-025	Elizatxo hiribidea	3	3	B	2	69,57
25	EB3-0292/20-LE-031	Elizatxo hiribidea	3	3	H	2	68,53
6	EB3-0292/20-LE-027	Elizatxo hiribidea	3	3	D	1	51,22
7	EB3-0292/20-LE-026	Elizatxo hiribidea	3	3	C	1	50,13

b.2) 21.001 eurotik 39.000ra bitarteko diru-sarreraren azpikupoa 7 etxebizitza.

Etxkod	ESPED. ZK.	HELBIDEA	ATARIA	PISUA	LETRA	BIZILAGUN KOP.	m ²
45	EB3-0292/20-LE-032	Elizatxo hiribidea	3	4	A	3	89,72
15	EB3-0292/20-LE-039	Elizatxo hiribidea	3	5	A	2	70,00
16	EB3-0292/20-LE-042	Elizatxo hiribidea	3	5	D	2	66,02
17	EB3-0292/20-LE-040	Elizatxo hiribidea	3	5	B	2	63,93
18	EB3-0292/20-LE-041	Elizatxo hiribidea	3	5	C	2	62,88
4	EB3-0292/20-LE-035	Elizatxo hiribidea	3	4	D	1	51,22
5	EB3-0292/20-LE-034	Elizatxo hiribidea	3	4	C	1	50,13

c) Etxebizitza edukitzeko eskubide subjektiboa duten pertsonentzat, egokitu gabeko etxebizitzaren % 11 erreserbatuko da: 5 etxebizitza.

Etxkod	ESPED. ZK.	HELBIDEA	ATARIA	PISUA	LETRA	BIZILAGUN KOP.	m ²
47	EB3-0292/20-LE-024	Elizatxo hiribidea	3	3	A	3	89,72
48	EB3-0270/21-LE-008	Alarde	9	3	B	3	66,69
26	EB3-0292/20-LE-030	Elizatxo hiribidea	3	3	G	2	63,42
27	EB3-0270/21-LE-007	Alarde	9	3	A	2	61,36
8	EB3-0292/20-LE-019	Elizatxo hiribidea	3	2	D	1	51,22

d) Etxebizitza edukitzeko premia berezia duten pertsonentzat, egokitu gabeko etxebizitzaren % 32 erreserbatuko da: 16 etxebizitza.

Etxkod	ESPED. ZK.	HELBIDEA	ATARIA	PISUA	LETRA	BIZILAGUN KOP.	m ²
49	EB3-0292/20-LE-016	Elizatxo hiribidea	3	2	A	3	89,72
50	EB3-0270/21-LE-006	Alarde	9	2	B	3	66,69
51	EB3-0292/20-LE-008	Elizatxo hiribidea	3	1	A	3	89,72
28	EB3-0292/20-LE-028	Elizatxo hiribidea	3	3	E	2	59,81
29	EB3-0292/20-LE-029	Elizatxo hiribidea	3	3	F	2	59,44
30	EB3-0292/20-LE-017	Elizatxo hiribidea	3	2	B	2	69,57
31	EB3-0292/20-LE-022	Elizatxo hiribidea	3	2	G	2	63,42
32	EB3-0270/21-LE-005	Alarde	9	2	A	2	61,36
33	EB3-0292/20-LE-020	Elizatxo hiribidea	3	2	E	2	59,81
34	EB3-0292/20-LE-021	Elizatxo hiribidea	3	2	F	2	59,44
35	EB3-0292/20-LE-010	Elizatxo hiribidea	3	1	C	2	65,51
36	EB3-0292/20-LE-014	Elizatxo hiribidea	3	1	G	2	63,42
12	EB3-0292/20-LE-003	Elizatxo hiribidea	3	B	C	1	51,22
9	EB3-0292/20-LE-018	Elizatxo hiribidea	3	2	C	1	50,13
10	EB3-0292/20-LE-009	Elizatxo hiribidea	3	1	B	1	59,07
11	EB3-0292/20-LE-011	Elizatxo hiribidea	3	1	D	1	51,22

e) Kupo orokorreko gainerako eskatzaileen kolektiboarentzat, egokitu gabeko etxebizitzaren % 21 erreserbatuko da: 11 etxebizitza.

e.1) 21.000 eurorainoko diru-sarreraren azpikupoa: 3 etxebizitza.

Etxkod	ESPED. ZK.	HELBIDEA	ATARIA	PISUA	LETRA	BIZILAGUN KOP.	m ²
43	EB3-0292/20-LE-004	Elizatxo hiribidea	3	B	D	2	59,82
44	EB3-0292/20-LE-005	Elizatxo hiribidea	3	B	E	2	59,44
14	EB3-0270/21-LE-002	Alarde	9	B	B	1	46,35

c.2) 21.001 eurotik 39.000ra bitarteko diru-sarreraren azpikupoa: 8 etxebizitza.

Etxkod	ESPED. ZK.	HELBIDEA	ATARIA	PISUA	LETRA	BIZILAGUN KOP.	m ²
52	EB3-0270/21-LE-004	Alarde	9	1	B	3	66,69
37	EB3-0270/21-LE-003	Alarde	9	1	A	2	61,36
38	EB3-0292/20-LE-012	Elizatxo hiribidea	3	1	E	2	59,82
39	EB3-0292/20-LE-013	Elizatxo hiribidea	3	1	F	2	59,44
40	EB3-0292/20-LE-007	Elizatxo hiribidea	3	B	G	2	70,00
41	EB3-0292/20-LE-006	Elizatxo hiribidea	3	B	F	2	66,25
42	EB3-0292/20-LE-001	Elizatxo hiribidea	3	B	A	2	62,82
13	EB3-0292/20-LE-002	Elizatxo hiribidea	3	B	B	1	50,13

c) eta d) azpiapartatuetan aurreikusitakoa aplikatuz erreserbatu ez diren etxebizitzak gainerako kupoei esleituko zaizkie.

Baldin eta kupo bateko etxebizitzak erreserba dagokien kolektibo horretako pertsoneri edo bizikidetzak-unitateei esleitu gabe geratzen badira, handitu egingo da gainerako eskatzaileentzako kupo orokorrerako diren etxebizitzak kopua.

Edozein kupotan etxebizitza hutsak geratzen badira eta kupo horretan izena eman duten pertsonen itzarote-zerrenda agortu bada, soberako etxebizitza horiek beste kupo edo azpikupo batzuetako etxebizitzak kopurua handituko dute, ondoko ordenaren arabera.

8. Baremazio-irizpideak.

Oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten pertsonak eta bizikidetzak-unitateak honako baremazio-irizpide hauen arabera puntuatuko dira:

a) Diru-sarrerak.

10 puntu emango zaizkie 0 eta 9.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei; **9 puntu**, 9.001 eta 15.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei; **8 puntu**, 15.001 eta 25.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei, eta **5 puntu**, 25.001 eta 39.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei.

b) Bizikidetzak-unitateko kide-kopurua.

Bizikidetzak-unitateko kide-kopurua puntuatzeko, sustapeneko etxebizitzek dituzten logelen kopurua hartuko da kontuan.

Logela 1 duten etxebizitzak: **puntu 1** emango zaie 2 kidek osatutako bizikidetzak-unitateei, eta **0 puntu**, pertsona bakarreko bizikidetzak-unitateei.

2 logelako etxebizitzak: **3 puntu** emango zaizkie 3 kidek osatutako bizikidetzak-unitateei; **puntu 1**, 2 kidek osatutako bizikidetzak-unitateei, eta **0 puntu**, pertsona bakarreko bizikidetzak-unitateei.

3 logelako etxebizitzak: **7 puntu** emango zaizkie 6 kidek edo gehiagok osatutako bizikidetzak-unitateei; **5 puntu**, 5 kidek osatutako bizikidetzak-unitateei; **3 puntu**, 4 kidek osatutako bizikidetzak-unitateei, eta **puntu 1**, 3 kidek osatutako bizikidetzak-unitateei.

c) Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko izen-ematearen antzintasuna.

Puntu 1 emango da antzintasun handiena duen bizikidetzak-unitateko kidea izena emanda dagoen urte bakoitzeko, eta **gehienez ere 7 puntu**.

"Etxebide"ren Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan izena emanda egon eta Irungo Udaleko/IRUNVIko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emanda ez dauden pertsona edo bizikidetzak-unitate eskatzaileei, betekizunak betetzen badituzte, Irungo udalerriko eskatzaileak badira eta izena emateko inprimakia adierazitako epean aurkezten badute, "Etxebide"ren Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroko antzintasuna errespetatuko zaie.

Babes Publikoko Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistro bietan alokairu-erregimenean inskribatuta dauden pertsoneri edo bizikidetz-unitateei antzinasun handiena duen Erregistroko antzinasuna errespetatuko zaie, baldin eta inguruabar hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu badute deialdi honen 6. atalean eta oinarrietan adierazitako esleipen-prozesuan izena emateko epea amaitu baino lehen, eta betiere bi erregistroetan inskribatutako bizikidetz-unitateak bat baldin badatoz izena emateko epe hori amaitzen denean.

d) Etxebizitza-premia berezia.

4 puntu emango zaizkie etxebizitza-premia berezia duten kolektiboetakoren bateko titularren bat duten espedienteei. Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta buru-eritasuna duten pertsonen kasuan, **4 puntu** emango zaizkie espedienteei, bizikidetz-unitateko edozein kidek izaera hori egiaztatuta baldin badauka. Kolektibo batean baino gehiagotan daudenei **4 puntu** emango zaizkie kolektibo bakoitzeko, eta **gehienez ere 8 puntu**.

9. Esleitzeko lehentasuna.

Irungo Udaleko/IRUNVIko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa arautzen duen Erregelamenduaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskaerak barematu ondoren, honako lehentasun hau aplikatuko da:

- 1.- Lehendabizi, azken 5 urteetan Irunen erroldatuta egon direnak edo azken 20 urteetan gutxienez 10 urtez Irunen erroldatuta egon direnak.
- 2.- Bigarren, Irunen erroldatuta dauden pertsonak.
- 3.- Hirugarren, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden pertsonak.

Lehentasun hori aplikatuko da, noiz eta bizikidetz-unitatea osatzen duen pertsonetako batek, gutxienez, 1., 2. edo 3. ataletan adierazitako betekizunak betetzen dituzenean.

10. Esleipenaren garapena.

Etxebizitzak kupo eta azpikupo bakoitzean ordenaren arabera esleituko dira, eta etxebizitzen logela-kopurua bizikidetz-unitateen beharretara egokituz.

Logela bateko etxebizitzak gehienez ere 2 kide dituzten bizikidetz-unitateei esleituko zaizkie; bi logelako etxebizitzak gehienez 4 kide dituzten bizikidetz-unitateei esleituko zaizkie; hiru logelako etxebizitzak gehienez 6 kide dituzten bizikidetz-unitateei esleituko zaizkie.

Gehiegizko okupaziorik gerta ez dadin, etxebizitzak esleitzean etxebizitza gainokupatuta dagoela ulertuko da bertan bizi diren pertsonen kopurua ratio hauen arabera dagokiona baino handiagoa denean:

a) Bizilagun 1 daukan etxebizitza batek gutxienez 25 metro karratu erabilgarri izan beharko ditu azaleran.

b) Bizilagun 2 dauzkan etxebizitza batek gutxienez 35 metro karratu erabilgarri izan beharko ditu azaleran.

c) 3 Bizilagun dauzkan etxebizitza batek gutxienez 50 metro karratu erabilgarri izan beharko ditu azaleran.

d) 4 Bizilagun dauzkan etxebizitza batek gutxienez 60 metro karratu erabilgarri izan beharko ditu azaleran.

e) 5 bizilagun edo gehiago dituen etxebizitza batek $S \geq 20 + \{10 \times N\}$ formula aplikatu eta emaitzaren azalera erabilgarri bera edo handiagoa edukiko du. Formulan, N pertsona-kopurua da, eta S, berriz, etxebizitzaren gutxieneko beharrezko azalera erabilgarria. Baldintza hori betetzen ez bada, etxebizitza gehiegi okupatutzat hartuko da.

Ondorio horietarako, ez dira zenbatuko terrazen, balkoien edo esekilekuen azalera.

Lehenik, etxebizitza egokituak abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskineko A letrarekin kalifikatutako pertsona ezgaituei esleituko zaizkie; ondoren, B letrarekin kalifikatutako pertsona ezgaituei, eta azkenik, 2. eranskin horretako D eta H letren arabera 7 puntu edo gehiago dituztenei. Errege Dekretu horrek ezgaitasun maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura arautzen du.

Ondoren, 36 urtetik beherakoen kupoko etxebizitzak esleituko dira, logela gehien eta garaiera handiena dutenetatik hasita, eta azkenik, logela gutxien eta altuera txikiena dutenak, betiere etxebizitza horiek egoki dituzten bizikidetz-unitateen artean.

Ondoren, etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboaren titularren kupoko etxebizitzak esleituko dira, logela gehien eta garaiera handiena dutenetatik hasita, eta azkenik, logela gutxien eta altuera txikiena dutenak, betiere etxebizitza horiek egoki dituzten bizikidetz-unitateen artean.

Ondoren, etxebizitza-premia berezia dutenen kupoko etxebizitzak esleituko dira, logela gehien eta garaiera handiena dutenetatik hasita, eta azkenik, logela gutxien eta altuera txikiena dutenak, betiere etxebizitza horiek egoki dituzten bizikidetz-unitateen artean.

Azkenik, gainerako eskatzaileen kupo orokorreko eta esleitu gabe geratu diren beste kupoetako etxebizitzak esleituko dira, logela gehien eta garaiera handiena dutenetatik hasita, eta azkenik, logela gutxien eta altuera txikiena dutenak, betiere etxebizitza horiek egoki dituzten bizikidetz-unitateen artean.

Kupoak adina itzarote-zerrenda egingo dira, eta bertan parte hartu eta etxebizitzarik lortu ez dutenek osatuko dituzte.

11. Behin-behineko zerrendak eta erreklamatzeko epea.

Eskaerak jasotzeko epea bukatutakoan, haien datuak aztertuko dira, eta, berriuspen horren arabera, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak egingo dira. Azken kasu horretan, zergatik baztertu duten aipatuko da. Zerrendak IRUNVIko Administrazio Kontseiluak onartuko ditu eta IRUNVIren webgunean argitaratuko dira, EHAAn eta Gipuzkoako lurralde historikoan gehien argitaratzen diren euskarazko eta gaztelaniazko egunkarietan argitaratuko direla iragarri.

Erreklamazioa Irunviko Administrazio Kontseiluan aurkeztu ahal izango da, zerrendak EHAAn argitaratzen direnetik hasita 15 eguneko epean. Erreklamazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko da Irungo Udalaren egoitza elektronikoa edo, aurrez hitzordua eskatuta, sozietatearen bulegoetan. Eta erreklamazioarekin batera, azaltzen diren arrazoiak babesteko beharrezkotzat jotzen diren frogagiriak aurkeztu beharko dira.

12. Behin betiko zerrendak.

IRUNViko Administrazio Kontseiluak ebatziko ditu erreklamazioak, eta onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onetsiko ditu. Zerrendak IRUNVIren webgunean argitaratuko dira, iragarri EHAAN eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko tiradarik handieneko euskarazko eta gaztelaniazko egunkarietan argitaratuko direla.

Kupoak adina esleipen-zerrenda onetsiko dira.

Honako datu hauek edukiko dituzte behin betiko zerrenda horiek:

1. NANA eta eskaera bakoitzari esleitutako espediente-zenbakia.
2. Zein kupotan parte hartzen duen.
3. Zerrendako kokapena, etxebizitzaren logela-kopuruaren arabera.

Parte-hartzaileen behin betiko zerrendetan onartuen zerrendan sartzeak ez du esan nahi eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen direnik. Baldintza eta betekizun horiek errentamendu-kontratuak sinatu aurretik egiaztatuko dira.

13. Esleipen-prozedura.

Etxebizitzak alde aurretik ezarritako ordenaren arabera esleituko dira, eta kontuan hartuta pertsonen eta familia-unitateen zein kupotan eta azpikupotan parte hartzen duten, eta oinarri hauetako 8. puntuan adierazitako baremoa aplikatuta eskatzaile bakoitzak aurkeztutako dokumentazioaren arabera lortutako puntuazioaren hurrenkeran, eta esleipenean oinarri hauetako 9. atalean aurreikusitako lehentasuna emanda. Ordena puntuaziorik handienetik txikienera izango da kupo bakoitzeko eta etxebizitzako logela-kopuru bakoitzeko.

Berdinketarik gertatuz gero, antzinasun handiena duen eskaeraren alde ebatziko da, eta antzinasun bera baldin badute, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan antzinasun handiena duen eskaeraren alde.

Horren arabera, Administrazio Kontseiluak esleipendun hautatuen zerrenda onetsiko du, zein etxebizitza esleitu zaien adierazita. Hautatuen zerrenda IRUNVIren webgunean argitaratuko da, iragarri EHAAN eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko tiradarik handieneko euskarazko eta gaztelaniazko egunkarietan argitaratuko dela.

14. Esleipendunak.

Hautatutako esleipendunek ez dute automatikoki izango esleitutako etxebizitzaren onuradun izateko eskubidea. Baldintza hori behin betiko esleipenarekin bakarrik lortuko da.

Hautatutako pertsoneri edo bizikidetzaren unitateei pertsonalki jakinaraziko zaie, eta, hala behar denean, eskatuko zaie adierazten den epean aurkezten diren deialdiaren aldez aurretik egiaztatu ez dituzten nahitaez bete beharreko betekizunei buruzko dokumentazioa. Oinarri hauetako 16. atalaren ondorioetarako, errekerimendu hori bete ezean, atzera egin dutela ulertuko da, eta horren ondorioz aukera emango zaie dagokion itzarote-zerrendan agertzen diren hurrengo pertsoneri.

Hautatutako pertsonak edo bizikidetzaren unitateak behin betiko esleipendun bihurtuko dira, egiaztatzen denean datu pertsonalak eta aurkeztu duten dokumentazioa zuzenak direla eta eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Hala ez balitz, hau da, kontratuak sinatu aurretik egiaztatzen bada ez dituztela betetzen exijitzen diren baldintzak eta betekizunak, pertsona edo bizikidetzaren unitate horiek huts bat utziko dute, eta horretan ere itzarote-zerrendako ordena jarraituz beteko da huts hori.

Esleipen-prozedura eten ahal izango da interes publiko edo sozialengatik, baita Sozietateari egotzi ezin zaizkion inguruabarengatik etxebizitzak eman ez direnean ere, eta etete horrek ez du sortuko inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

15. Itzarote-zerrenda.

Esleipena amaitu ondoren, kupoak adina itzarote-zerrenda egingo dira, eta bertan parte hartu eta etxebizitzarik lortu ez dutenek osatuko dituzte zerrenda horiek. IRUNVIko Administrazio Kontseiluak onetsiko ditu itzarote-zerrenda guztiak.

Zerrendak IRUNVIren webgunean argitaratuko dira, iragarri EHAAn eta probintziako tirada handieneko euskarazko eta gaztelaniazko egunkarietan argitaratuko direla ezagutzera emateko.

Honako datu hauek edukiko dituzte behin betiko zerrenda horiek:

4. NANA eta eskaera bakoitzari esleitutako espediente-zenbakia.
5. Zein kupotan parte hartzen duen.
6. Zerrendako kokapena, etxebizitzaren logela-kopuruaren arabera.

Kasu horietan guztietan, etxebizitzaren bat esleipendun gabe geratu bada, hutsik gertatu den kupoaren arabera eta bizikidetzaren unitateko kideen kopuruaren eta esleitu beharreko etxebizitzako gela arabera beteko da.

Itzarote-zerrenda agortuta, etxebizitzak errentamendu-erregimeneko bigarren eskualdaketetako zerrenden bidez esleituko dira, zerrendetan ezarritako ordenari jarraituz. Zerrenda horiek urtero onetsiko ditu IRUNVIko Administrazio Kontseiluak.

16. Uko egitea.

Bizikidetz-unitatearen bitoki-beharrei egokitutako etxebizitza bat esleitzeari uko eginez gero, erregistroan/erregistroetan baja emango zaio, uko egiten denetik urtebeteko epean, eta ezin izango du berriz eskatu Babes Publikoko Etxebizitzen Erregistroan/erregistroetan izena emateko, uko egin eta urtebete igaro arte.

17. Aplikatu beharreko araudia.

Oinarri hauetan aurreikusten ez den orotan, aplikatzekoa den araudian eta Irungo Udaleko/IRUNViko Babes Publikoko Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistroa arautzen duen Erregelamenduan xedatutakoa beteko da.

Irunen, 2023ko martxoaren 29(a)n.

IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA / SOCIEDAD PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN
SAUko Administrazio Kontseiluko presidentea

José Antonio SANTANO CLAVERO.

I. ERANSKINA

ESKARI ORRIA / INSTANCIA

SINATZAILEAK eskari hau egiten dio Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoari:

ESKATZAILEA/SOLICITANTE:

IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS		NA / D.N.I.	
HELBIDEA/DOMICILIO			
UDALERRIA/POBLACIÓN	PK / C.P.	PROBINTZIA/PROVINCIA	TELEFONOA

BIZIKIDEA/ACOMPAÑANTE:

IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS		NA / D.N.I.	
HELBIDEA/DOMICILIO			
UDALERRIA/POBLACIÓN	PK / C.P.	PROBINTZIA/PROVINCIA	TELEFONOA

EL QUE SUSCRIBE formula instancia a la Sociedad Pública de Vivienda de Irun, en los términos siguientes:

Bizikidetz-unitatea osatzen duten adin nagusiko beste kide batzuk, errentamendu-kontratuaren titular izango ez badira ere/Otros miembros que forman parte de la U.convivencial mayores de edad aunque no vayan a ser titulares del contrato de arrendamiento:

Izen abizenak / Nombre y Apellidos	NAN/DNI	Titularra bai/ez. Titularra izanez gero, be hartuko dira kontuan. Titular si/no. En caso tendrán en cuenta sus ingresos.

JAKINARAZTEN DUT/ COMUNICO QUE:

- Eusko Jaurlaritzaren Babes Publikoko Etxebizitzen Erregistroan (Etxebide) inskribatuta nago, alokairu-erregimenean. Estoy inscrito en el registro de vivienda de protección pública del Gobierno Vasco (Etxebide) en régimen de alquiler.
- Irungo udalerrian etxebizitza-eskatzaile gisa agertzen naiz/Figuro como demandante de vivienda en el municipio de Irun.
- Betetzen ditut Irungo Administrazio Kontseiluak 2023ko martxoaren xx (e) an onartutako oinarrietan aurreikusitako baldintzak. Oinarri horiek Alardearen 6.3.01 eremuan 52 BPE esleitzea arautzen dute, erregimen orokorrean/Cumpló con los requisitos previstos en las bases aprobadas por el consejo de Administración de Irunvi con fecha xx de marzo de 2023 y publicadas en el BOPV de fecha..... y que regulan la adjudicación de 52 VPP en el ámbito 6.3.01 de Alarde en régimen general.

ESKATZEN DUT/ SOLICITO:

- Irungo Alardeko 6.3.01 eremuan alokairuko erregimen orokorreko babes publikoko 52 etxebizitza esleitzeko prozeduran inskribatzea/La inscripción en el procedimiento de adjudicación de 52 viviendas de protección pública en régimen general de alquiler en ámbito 6.3.01 de Alarde Irun.
- Irungo Udalaren Babes Publikoko Etxebizitzaren eskatzaile gisa onartzea Irungo Alardeko 6.3.01 eremuan 52 BPE alokairuko erregimen orokorrean esleitzeko prozedurarako/La admisión como solicitante de Vivienda de Protección Pública del Ayuntamiento de Irun/IRUNVI para el procedimiento de adjudicación de 52 VPP en régimen general de alquiler en ámbito 6.3.01 de Alarde Irun.

BAIMENA EMATEN DUT/AUTORIZO:

- ETXEBIDERi, esleipen-prozeduran inskribatzeko beharrezkoak diren datu guztiak IRUNVIri helaraz diezazkion/A ETXEBIDE a que traspase a IRUNVI todos los datos necesarios para la inscripción en el procedimiento de adjudicación.

<p>Irungo Udala/IRUNVIren babes publikoko etxebizitzaren eskatzaile gisa baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta eguneratzeko, eta, ondoren, esleipena egiteko, Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa SAU - IRUNVIk beharrezko datu hauek kontsultatuko dizkio erakunde eskudunari:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Etxebizitza eskaerak/esleipenak (Etxebide) / Solicitudes/adjudicaciones de vivienda (Etxebide) ✓ Errolda (Irungo Udala eta EAEko gainerako Udalak) / Empadronamiento (Ayuntamiento Irun y demás Aytos. de la CAPV). ✓ Atzerritarren legezko bizileku-baimena (Atzerritarrak) / Residencia legal de personas extranjeras (Extranjería) ✓ Ezkontza, jaiotzak eta heriotzak (Erregistro Zibila) / Matrimonio, nacimientos y defunciones (Registro Civil) ✓ Izatezko Bikoteen Erregistroa (Eusko Jaurlaritza) / Registro de Parejas de Hecho (Gobierno Vasco) ✓ Familia Ugariaren Titulua (Eusko Jaurlaritza) / Título de Familia Numerosa (Gobierno Vasco) ✓ Errenta maila (Foru Ogasunak) / Nivel de Renta (Haciendas Forales). ✓ Ondasun Higiezinaren datuak (Foru Ogasuna) / Datos de Bienes Inmuebles (Hacienda Foral). ✓ Etxebizitzaren eza egiaztatzea (Jabetza erregistroa) / Comprobación carencia de vivienda (Registro de la propiedad). <p>Datuen kontsultari aurka egiteko eskubidea</p> <p>Titularra edo bizikidetzaren unitateko pertsonaren bat berariaz aurka dago Administrazioak prozeduran eskatutako dokumentuak kontsultatzeko edo eskatzeko aukera izatearekin (39/2015 Legearen 28. artikulua), Irungo Udala/IRUNVIren babes publikoko etxebizitza baten eskatzaile edo titular gisa agertzen den bitartean.</p> <p>Oharra: aurka eginez gero, eskabidearekin batera aurkeztu beharko dituzu agiri horiek, baldin eta zuzentzeko eskatzen badizute, eta urtero baldintzak betetzen dituzula egiaztatzen den bitartean.</p> <p>Datuak kontsultatzeari aurka egiteko arrazoa</p>	<p>Para acreditar y actualizar el cumplimiento de las condiciones como solicitante de Vivienda de Protección Pública del Ayuntamiento de Irun/IRUNVI y posterior adjudicación, la Sociedad Pública de vivienda de Irun, SAU-IRUNVI consultará a la entidad competente los siguientes datos necesarios:</p> <p>Derecho de oposición a la consulta de datos</p> <p>La persona titular o alguna persona de la unidad convivencial se opone expresamente a que la Administración pueda consultar o recabar los documentos requeridos en el procedimiento (art. 28 de la Ley 39/2015) mientras figure como solicitante o titular de una de Vivienda de Protección Pública del Ayuntamiento de Irun/IRUNVI.</p> <p>Nota: en caso de oponerse, deberá aportar dichos documentos junto con la solicitud, en caso de que se le requiera una subsanación, y durante las revisiones de cumplimiento de requisitos que se realizan anualmente.</p> <p>Motivo para la oposición a la consulta de datos</p>
---	---

ADIN NAGUSIKOAK DIREN BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDE GUZTIEN SINADURA/FIRMA DE TODOS LOS MIEMBROS DE LA UNIDAD CONVIVENCIAL MAYORES DE EDAD

Izen-abizenak Nombre y Apellidos	NAN DNI	Sinadura Firma

ZURE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
 Arduraduna: IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA - IRUNVIk Irungo Udalaren etxebizitza-eskumena kudeatzeko datuak tratatzen ditu. Helburua: Etxebizitza publikoen eskualdaketak kudeatzea. Eskubideak eta informazio gehigarria: datuen tratamenduari buruzko eskubideak balia daitezke, eta tratamendu horri buruzko informazio gehigarria jaso, gure webguneko pribatutasun-atarian: www.irun.org/irunvi

INFORMACIÓN RELATIVA AL TRATAMIENTO DE SUS DATOS PERSONALES Responsable: La SOCIEDAD PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN- IRUNVI trata los datos para la gestión de la competencia municipal de vivienda del Ayuntamiento de Irun. Finalidad: Gestionar las transmisiones de vivienda pública.. Derechos e información adicional: Pueden ejercerse los derechos relativos al tratamiento de sus datos y obtener información adicional sobre dicho tratamiento en el portal de privacidad de nuestro sitio web www.irun.org/irunvi